

Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

Lehenik eta behin, argi utzi nahi dugu naturan eta hau salbatzeko beharrian oinarritu garela eta, horregatik, "Naturtelas" ekin akordio batera ailegatuko gara 6 hilabetez haiekin lan egiteko eta ikusteko apur bat haien lan egiteko metodoa gu ikasteko. Gainera, enpresa honek blog interesgarri bat du, gure ehungintza proiektua aurrera egiteko balio dezakeena. Beti esaten da dakien norbaitengandik ikastea hobe dela, eta horrek gure bezeroen ongizatea bermatzen duela.

Gero, Fedex-ekin, FedEx Corporation logistika-konpainia estatubatuarra da, eta nazioarteko estaldura du. Mezularitza-enpresa hau aukera ona da gure produktuak bezeroengana modu seguruan eta munduko edozein lekutan irits daitezen. Eskaera bezeroaren eskuetara iristeko prozesua nahiko konplexua dela uste dugu, bidean arazoak egon baitaitezke. Horregatik guztiagatik, eskaerak bideratzeko enpresa arduratsu eta fidagarri batera jo behar izan dugu.

"Impacto" garbiketa enpresa ere beharko dugu. Gure lokalaren garbiketa da, zalantzarik gabe, gehien inbertitzea merezi duen gauzetako bat. Alde batetik, lekuaren garbiketa bermatzeko, bizi dugun osasun-egoera osasungarria izateaz gain, askoz ere beharrezkoagoa da garbituta eta desinfektatuta egotea. Bestalde, uste dugu lokala garbi edukitzeak itxura hobea emango diela bisitan etortzen diren bezeroei.